

TRES INVERNALES EN AIZKORRI



TESTUA ETA ARGAZKIAK



Xabi Mujika "Smithy"
(Ordizia, 1973).

Batzuetan erizaina, zenbaitetan dietista eta noizean behin eskalatzea eta mendian korrika egitea gustuko duen mendizalea. Ipurterrea, ohiko bideetatik ihesi eta Euskal Herriko mendietara ezohiko bideak aurkitzen saiatzen dena, Aralar eta Aizkorrin batez ere. Hala ere, aukera duen bakoitzean Pirinioetara ihes egiten du bertako mendiei bisita egiteko.

Irtengunera iristen.

1 AITXURI AKETEGIREN ERDIKO KANALETIK (AD)


Aizkorri mendilerroak Euskal Autonomi Erkidegoko mendirik garaienak gordetzen ditu. Nahiz eta mendi hauen artean Aizkorri ezagunena izan, guztien artetik altuena 1551 metroekin Aitxuri mendia da. Errekor hau izateaz aparte, badu beste bat: bere 943 metroekin Euskal Herriko mendirik garaiena da eta Espainiako Estatuko 36. postuan kokatzen da.

Mendilerro honek isurialdeen banalero moduan ere jokatu du: bere hegoaldera isurtzen diren urak Mediterraneo itsasora doaz, iparraldeko urek, aldiz, beraien ibilbidea Kantauri itsasoan amaitzen dute. Bi isurialdeen arteko aldea ere nabaria da: hegoaldean malda gozo eta leunak dauden bitartean, iparraldean ia mila metroko amildegia daude, honegatik, bertako mendietara doazen ohiko bideak orokorrean ez dira ipar aurpegitik igotzen.


Baina negua iritsi eta Aizkorri zuriz janzen denean ipar aurpegiak udan ezkutatutako altxorrak azalarazten ditu: ipar aurpegia goi-

tik behera zeharkatzen duten kanalak. Kanal hauen artean ezagun eta ibilienak Aizkorriko gailurrean amaitzen den Kanalaundi Zuzena eta Iraulen amaitzen den Sakonaundi kanalak dira. Aitxuri mendiaren gailurrera neguan ipar hormatik iristeko bi kanal nagusi jarraitu ditzakegu: Iraule mendira doan Sakonaundi (ibilbide hau jarraituz Zegaman kilometro bertikala antolatuta da) edota Aketegiko Erdiko Kanala ("Nardagaito" izenez ere ezaguna) jarraituz.

Aketegiko Erdiko kanala Aketegiren gailurraren azpitik zuzen-zuzen jaisten den kanal estua da. Aizkorriko kanal nagusien artean ka-



Aizkorri zuriz janzten denean ipar aurpegiak udan ezkutatutako altxorrak azalarazten ditu



nalik luze, estu, tekniko eta zailena da eta bertan denetarik topatuko dugu: hankak eta hauspoa ederki berotuko dizkiguten maldak, irtengune bertikalak, eta izotz eta harkaitz-ESKALADAREN bat ere. Neguko materialaren erabileran eskarmentua izatea eskatuko digun kanala da, honetatik, kanal hau igo aurretik Aizkorrik dituen beste kanal errazagoak igotzea komeni da.

Kanal hau igotzeko ezinbestean krampoi, bi piolet eta kaskoa eraman beharko ditugu. Honetaz aparte, komenigarria izan daiteke 30 metroko soka bat eta zuhaitzen enborretatik pasatzeko baga batzuk eramatea, express zintekin noski. Honetaz aparte, kanaleko lehen irtengunea zuzen igotzeko asmoa badugu, dozena erdi bat express eta friend txiki bat edo beste ere eraman beharko dugu.

Kanalak inbutu itxura dauka eta Akitegi eta Aitzuri mendiek lotzen duten hormatik erortzen diren harri eta harkaitz gehienak hemendik behera erortzen dira. Honegatik kanalera goiz sartu beharko dugu eta beti kaskoa buruan dugula.

NOLA IRITSI?

Kanal honetara iristeko bi abiapuntu ditugu: Zegamako geralekia edota Hiruetxeta auzoa. Lehenengoa hartzen badugu, Irauleko Sako-naundira jarraitu beharreko bide bera jarraitu beharko dugu (Igertuk deskribatutakoa). Zegamako geralekutik, presarik gabe 1:45 h - 2:00 h inguru pasako dugu. Itzubiaga bordara iristen garenean Zegama-Aizkorri maratoiaren bidea jarraituko dugu, 25 minutu inguruan gure eskuinean elur jausiek garbitu duten kanalaren oinera iritsi arte. Hiruetxetatik igotzen bagara, PR GI-70 ibilbidea (Zegamako itzulia) jarraitu beharko dugu kanalaren hasiera arte. Hemen-dik 2 ordu inguruko bidea izango dugu, baina igo beharreko aldapa txikiagoa da.

DESKRIBAPENA

Kanalaren oinean gaudela gora zuzen jo beharko dugu. Igoeraren lehenengo 150 metro inguruak elur jausiek pagadiaren erdian irekitako pasabidea igotzen beteko ditugu. 35 gradu inguruko aldapa igotzea besterik ez da eta aparteko zailtasunik ez dauka, baina elur bigunarekin nekeza izan daiteke eta, batean edo bestean, eroritako pagoen adar edo sus-traiei heldu beharko diegu gora egiteko.

Hauspoa ederki berotuko digun lehen metro hauen ondoren, horma bertikal baten azpira, eta honekin batera, kanalak duen lehen oztopora iritsiko gara: lehenengo irtengunea. Irtengune hau kanalak duen irtengunerik zailena da eta 20-25 metro inguru ditu. Zuzen

igo nahi badugu espit batzuk topatuko ditugu, baina seigarren maila inguruko eskalada baten aurrean izango gara.

Dena den, eskuinera 20 metro inguru egiten baditugu irtengune hau gainditzeko modu errazagoa topatuko dugu, hurriz eta pagoen adar eta sustraietatik tiraka II-IIIko eskalada bat egin. Aukerako igoera honetan ongi etortzen da pioleten laguntza, bertako lokatz edota adarretan trazionatu ahal izateko. Sasi-eskalada hau ez da zaila baina lekuren batean baino gehiagoan bertikala jartzen da, beraz, honelako lekuan igotzeko erraztasunik ez badago, soka atera eta enborretan zintak pasatuz lasaia igoiko gara.

Aldapa tentetzen joango da eta kanalak pixkanaka eskuinera hartzen du

Lehen irtengunea gaindituta berehala bigarren irtengune bat izango dugu. Irtengune hau motzagoa da (8-10 metro) eta elur gogorrez estalita badago zailtasun handirik ez dauka. Baina elur bigun edota elurrik gabe, bertako harkaitz labainkorra eskalatzeko zailtasunak izan genitzake. Bigarren kasu honetarako badago irtenbide bat: irtengunetik 10 metro inguru ezkerrera jo eta bertatik zuzen eskalatzeko zuhaitzen adar eta harkaitzetatik tiraka. Bigarren aukera hau bertikalagoa da irtengunea bera baino, baina baita errazagoa ere. Hala ere, hemen ere, erosoago igotzeko soka atera daiteke, lekuren batean baino gehiagoan harri askeak izaten dira eta.

Bigarren irtengunea gainditzen dugun lekutik gainditzen dugula kanalean sartuko gara. Hemen kanala estua da eta maiz izaten dira elur-jauziek utzitako elur bola gogorrak. Hemendik gora kanala hirugarren irtengune bateraino igotzea besterik ez dugu. Irtengune hau (3 metro inguru) zuzen igoko dugu piolet eta kranpoien laguntzarekin ez baitauka zailtasunik, hala ere, elur gutxi badago, izerdixoren bat edo beste botako dugu. Hemendik aurrera, aldapa tentetzen joango da eta kanalak pixkanaka eskuinera hartzen du laugarren eta azken irtengunerara arte.

Laugarren irtengunea (5 metro eta bertikalala), elur mailaren arabera, zailtasunik gabekoa edo zailtasun handiko irtengunea izan daiteke. Topatzen dugun moduan topatzen dugula, pioletekin trazionatuz igo beharko dugu eta orokorrean bere eskuinetik igotzea izaten da errazena. Irtengune honek duen gauzarik txarrena da aseguratzeo aukera handirik ez duela ematen, eta friend nahiz fisureroak sartze pitzadura handirik ez dagoela. Irtengunea igotzen badugu, eskuin horman metro batzuk gora egin eta gero bilgunea egiteko leku eder bat topatuko dugu.



Irtengunea.

Behin irtengune hau gaindituta kanala erabat zabaldu eta Aketegi eta Aitxuri mendien arteko hormak sortzen duen zirkuaren azpian izango gara. Gora begiratzen badugu, Aketegi mendiaren gailurra babesten duen horma bertikala ikusiko dugu. Aitxurira iristeko, gora goazen heinean, pixkanaka eskuinera hartzen joan beharko dugu Aitxuritik behera zuzen doan gandor elurtsua erreferentzi bezala hartuz. Tarte batean 50 gradu inguruko aldapa duen malda igo ondoren, gandorrera igoko gara. Igoera hau elur biguna dagoenean benetan nekeza izaten da eta elurretan ia gerriraino dugula ere igo daiteke. Behin gandorrera igotzen garenean, zailtasun guztiak amaituta, inongo eragozpenik gabe Aitxuriren gailurrera iritsiko gara.

Jaitsiera abiapuntuaren arabera egin daiteke: kotxea Hiruuetetan utzi badugu, egokiena Aizkorriko Kanalaundi Nagusitik jaitea da (2:00 h - 2:30 h). Honetarako Aketegi eta Aitzabal mendien arteko gandorra jarraitu beharko dugu. Bi mendien arteko lepo zabaleraren iristen garenean gandorra utzi eta behera zuzen hartuko dugu, Kanalaundi Nagusia jarraituz. Jaitsiera honek ez du galtzeko arrisku handirik izaten bidea oso zapaldua izaten da eta.

Kotxea Zegamako geralekuan utzi badugu, aldiz, bi aukera ditugu: lehenengo aukera Zegamako kilometro bertikalak jarraitzen duen ibilbidea jarraitzea izango da (2:00 h - 2:30 h). Honetarako, Aitxuriko gailurretik metro batzuk iparraldera egin eta, Aizkorriko gandorra gure ezkerrean dugula, bide errazenetik jaisten joango gara azken aldapa gogor baten ondoren (45 gradu inguru) Sakonaundirekin bat egin arte. Jaisteko bigarren aukera Aizkorriko gandorra Sakonaundiren irteeraino jarraitzea da. 10 metro inguruko destrepe baten ondoren (rapel bat egin daiteke) Sakonaundira iritsi eta hemendik behera arazo handirik gabe jaitsiko gara (0:20 h - 0:30 h gehiago).

DATU TEKNIKOAK

- **LUZERA** 10 km ● **DESNIBELA** 1025 m positibo
- **IRAUPENA** 6-7 ordu inguru presarik gabe joaten bagara.
- **MATERIALA** Kaskoa, kranpoiak, bi piolet, 30 metroko soka bat, dozena erdi bat express zinta eta friend txikiren bat (batez ere lehen irtengunea zuzen eskalatu nahi badugu) eta neurri ezberdinetako zintak zuhaitzetan aseguratuta edota bilguneran bat muntatzeko.
- **ESTEKAK** <http://www.smithyrenbloga.com/2009/07/aketegi-erdialdeko-kanalatik-20090215.html>